

KONTRATAZIO DEIALDIA, ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHU_n 2023an "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" DEIALDIAN EMANDAKO LAGUNTZEI LOTUTAKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO

2025eko OTSAILAREN 3ko BEHIN BETIKO EBAZPENA

UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordearen 2024ko urriaren 31ko ebazpenak, Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzako 2021-2023 Estatuko Planaren esparruan aurreikusten diren doktoratu aurreko kontratueterako laguntzen deialdia onartu zuen. 2025eko urtarrilaren 15ean argitaratutako behin-behineko ebazpenari alegazioak aurkezteko epea amaitu eta ez denez alegaziorik jaso, Ikerketa Zuzendaritzak ebaluazio-batzorde bakoitzak egindako hautaketa berresten du. Hori dela eta, Ikerketa Errektoreordetzak honako hau agintzen du:

UPV/EHUren web orrian **ARGITARATZEA** doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko laguntzak emateko behin betiko ebazpena (**I. ERANSKINEAN** aipatzen direnak) eta hautagairik lortu ez duten proiektuen zerrenda (**II. ERANSKINEAN**).

Estatuko Ikerketa Agentziaren webgunean 2024ko abenduaren 4an argitaratutako **EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUEN ETA PROIEKTU HORIEI LOTUTAKO DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO JARDUEREN 2023ko deialdiari dagozkion laguntzak emateko AGINDUAN** xedatutakoaren arabera, kontratuak formalizatzeko eta sailetan, institutuetan edo zentroetan sartzeko, gehienez ere 6 hilabeteko epea egongo da, EIAk argitalpen hori egin eta biharamunetik hasita.

Kontratuak 2025eko martxoaren 1ean hasiko dira, salbu eta ikertzaile nagusiak eta prestatzen ari den ikertzaileak berariaz eskatzen badute geroago hasteko, betiere aurreko paragrafoan adierazitako epea betez.

Laguntzak emateko hasierako baldintzak eta epeak aldatzeko, organo emaileak baimena eman beharko du. Organo horrek egokitzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu eta emakidaren baldintzak aldatu ahal izango ditu ebazpen berri baten bidez.

Argitalpen honek, EHUren web orrian, 39/2015 Legearen 45. artikulua araberako egindako jakinarazpenaren ondorioak izango ditu.

Administrazio-bidea amaitzen duen behin betiko ebazpen honen aurka, deialdiaren 8.4 artikuluan jasotako aurkaratze-bideak jarri ahal izango dira.

Leioan, 2025.eko otsailaren 3an.

IKERKUNTZAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketarako Errektoreordetza